



Urriaren 10 eko greba deialdia,

**Publikotik edo Pribatutik, denak bateratu gaitezen !**

Izan arlo Publiko edo Pribatuan gobernamentuak aplikatzen dituen erreformak helburu berdina dute : lotura soziala, elkartasuna eta kolektiboa hautsi.

Urriaren 10 a, mobilizazio eta greba eguna izanen da. Zerbitzu publikoa ahultzen duten erreformen salatzeke eguna : indize-puntuaren balioaren izoztea, egun eskasa berrezartzea, 120 000 funtzionarioen desagertzearen perspektiba.

Bai, urriaren 10 a, zerbitzu publikoen kalitatea aldarrikatzeko eguna izanen da baina badakigu greba isolatu eta zatikatuak ez direla nahikoak izanen gobernamentua gibelarazteko ! Haratago gogoetatu behar dugu !

LAB ek argi du Euskal Herrian Macron erreformek ondorio latz guttiago izan dezaketela behar bezala antolatzen bagine. Izan Pribatu edo Publikoan, baldintza onak ditugu Euskal Herria MACRON LEGEAREN EREMUTIK KANPO atxikitzeke. LAB ek tokika eta manera inter profesional eta kolektiboan antolatu behar dela pentsatzen du. LAB ek, behin baino gehiagotan beste sindikatuak interpelatu ditu elkarrekin baldintza hoberenak sortzeke, EH an reforma hori ez dadin pasa.

LAB ek tresna horien eraikitzeke egunero lan egiten du.

**Pribatuan** : Macronek, enplegatzaileei akordioak manera kaltegarriago batean negoziatzea permititu nahi die ! « Principe de faveur » delakoa kenduz. Euskal Herrian prinzipio hori berreskura dezakegu ! **Euskal Herriko langileentzat eskubide berriak sortuz tokiko negoziaketa gunea eraikiz**. Beste sindikatuak ados badira, fite sortu genezake.

**Publikoan**, reforma hauek Euskal Herriko langileak hunkitzen baditu ere, Euskal Hirigune Elkargo berriak kalitatezko zerbitzu publiko berria asmatzea ahalbidetzen digu, herritarren beharrei erantzunez eta prekaritatearen aurka borrokatuz. Euskal Herriaren ezagutza administratibo eta instituzionalak bertan antolatzeko tresnak garatzen lagunduko gaitu : **Euskal lurralde eremuan kokatzen diren langile kudeaketa gunek plantan eman ez.**

**Bihar erabakitzeke, tresnak gaurdanik eraiki ditzagun !**

**Biharko prekaritatearen aurka borrokatzeke elkartasun soziala gaurdanik eraiki dezagun !**

LAB SINDIKATUA